

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak behar bezla funtziona dezan, ezinbesteko zenbait jarduera burutu beharko ditugu, eta honako hauek dira garrantzitsuenak:

Lehenik eta behin, webgunea eta sare sozialen kontuak (Instagram, Facebook, TikTok, etab.) martxan jarri behar ditugu. Gure webgunea Solargiren oinarri garrantzitsu bat izango da, honen bitartez erosketa-esperientzia eskuragarria bilakatuko da gure produktua bezeroengana iristeko ahalmena handituz. Sare sozialen kasuan, ikusgarritasun eta markaren aitorten handiagoa ematen lagun diezaguke. Sail honetan Nadia Rubio arduratuko da, sare sozialak eramaten, eskaerak online egiten, web orria eguneratzen, bezeroekin eta hornitzaileekin harremanetan jartzen eta Fnac-ekin harremanetan jartzen.

Bigarrenik, gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena da. Honekin batera, gure helburu nagusia etekinak eta gure enpresaren hazkundera lortzea da. Ekoizpenerako, bi langile edukiko ditugu kontratatuta arloan espezializatuta daudenak. Gainera, bezeroak beraien telefono mugikorren zorroa pertsonalizatzeko aukera izango dute, modu honetan beraiek bilatzen dutena lortzen lagunduko die modu azkar eta eraginkorrean.

Hirugarrenik, Libe Aizpurua dirua kudeatzeko dituen abileziak praktikan jarriko ditu. Bulegoan administrazio lanetan arituko da, hau da, finantza-arloan arituko da diru sarrerak eta gastuak kudeatuz. Administrazioaz gain, giza baliabideez, kontabilitateaz eta fakturazioz arduratzen da.

Partaideen lan banaketarekin jarraituz, Beñat Aginagalde aldizkariekin eta udaletxearekin izango da une oro harremanetan, beraz harreman publiko lanetan arituko da. Bulegoko lan kopurua handia izango

denez, produktuak antolatu eta biltegiatze lanak egiten lagunduko du. Era berean, kalitate kontrolaz arduratuko da.

Gainera, Alba Suarez produktuak jasoko ditu eta hornikuntzarekin arduratuko da. Beñatekin batera produktuak antolatu eta biltegiatuko ditu. Bestalde, da kudeaketaz arduratuko da, lan-taldeak zuzentzen, baliabideak koordinatzean eta erakundearen helburuak eta errendimenduak lortzeko gainbegiratzen. Hala ere, eskaintzen dugun zerbitzua hobetzeko helburuarekin, webgunean eskuragarri izango dira erreklamazio-orriak, eta bertan idazteko gai izango da, inongo kexarik edo iradokizunik badago.

Amaitzeko, banaketa enpresa bat azpikontratatu genduz gure webgunearen bitartez online egindako produktuak banatzeko. Honen arabera gure produktuak bezero bakoitzaren etxera iritsi ahal izango dute modu azkar, seguru eta eraginkor batean.